

SAN FAUSTO Jaiak 2024

Durango

Urriaren 11tik 20ra





JAKINARAZPENAK

- Jaietan, eta bereziki San Fausto egunean, Durangoko **jantzi tradizionala janztera animatzen zaitugu** (alkondara zuria eta gona edo praka urdinak).
- 16 urtetik beherako umeek debekatuta dute helduentzako "Zezenak dira" ekitaldian parte hartzea.
- Jai Batzordeak eskubidea du egitarauan aldaketak egiteko.
- Egitarauan aldaketarik balego, herritarrentzako informazio puntuetan, **Durango Agenda** app-an, **www.durango.eus** webgunean eta **udaleko sare sozialetan** agertuko dira.
- Udalak ez du erantzukizunik izango jai ekitaldian gertatu litezkeen istripuetan.



OHARRAK

GUNEAK:

SALTZAILE IBILTARIEN GUNEA Askatasun Etorbidean.

TXOSNAK Landako Gunean. Txosnagunean egingo diren ekintza guztiak Txosna Batzordeak antolatutakoak dira.

BARRAKAK ETA ZEZEN PLAZA

Tren-kotxera zaharretan.

SENTSIBILITATE BEREZIKO UMEENTZAKO EGUNAK BARRAKETAN (MUSIKA ETA ZARATARIK GABE)

Urriaren 13, 14 eta 17an, 17:00etatik 19:00etara. Umearen eguna: urriaren 17a (barraken prezioa: 2€).

BIZKAIBUSEN ZERBITZU BEREZIAK:

22:30ak eta 6:30ak artean Bizkaibusen bakarrik bidaiatzen duten emakumeek aukera izango dute lineako geldileku ofizialak ez diren geldialdiak eskatzeko (401/2019 Foru Agindua). Autobusa hiri bideetan geldituko da, espaloien ondoan edo oinezkoen pasabideen gainean, betiere, argia dagoen lekuetan eta inguruan eraikinak dituztenetan.

DURANGOKO UDALTAINGOKO TELEFONO ZUZENA: 94 603 00 10

Edozein urgentzietarako, inzidentzietarako edo laguntza eskatzeko, jarri kontaktuan.

MIREIA ELKOROIRIBE, ALKATE ANDREA

HAS DADILA FESTA!

Durangarrak! 2024ko San Fausto jaiak hemen dira jada. Heldu dira durangar guztiok hainbeste itxarondako egunak. Durango bizitzaz, kolorez eta alaitasunez gainezka espero ditugu, gure kaleak elkar-gune bihurtuko dira eta horietan zehar, nahi beste ikusten ez ditugun senide, koadrila eta lagunekin berri-erlartzeko aukera paregabeak biziko ditugu. Tradizioez, zein berrikuntzez,... kulturaz elkarrekin gozatzeko garaiak izango dira datozenak.

Jai hauek, gainera, durangarra izatearen harrotasunaren beste adibide bat dira. Gu guztiok partekatzen dugun sentimendu hori eta guztiok batzen gaituena, udalerrigisa bakarrak egiten gaituelako. Elkarrekin gozatu eta ospatzeko egunak dira.

Aurten ere, eskerrak eman nahi dizkiet jaiak posible izan daitezen denbora eta ahalegina eskaini duten pertsona guztiei. Eskerrik asko Jai Batzordeari, herriko elkarteei, herritarrei eta udaleko teknikariei, hartu duten konpromisoagatik eta jende guztiarentzako askotariko programa bat prestatzeagatik, ilusioz eta maitasunez pentsatua gutako bakoitzak bere gozamen-espazioa aurki dezan.



Txupinerook ere zoriondu nahiko nituzke egun hauei hasiera emateko ohorea eta ardura izango dutelako. Badakit emozioz eta harrotasunez biziko duzuela une oro, eta ziur nago energia hori durangar guztioi transmititzen jakingo duzuela. Ez daukat inolako zalantzarik.

Aurten ere, errespetua, berdintasuna eta bizikidetza eskatu nahi ditut.

2024ko San Faustoak eredu izan daitezela nola goza dezakegun harmonian, elkar zainduz eta pertsona guztiok jaiak askatasunez eta segurtasunez bizi ditzaketela ziurtatuz. Izan ere, jaiak guztionak eta guztiontzat dira, eta errespetuz eta alaitasunez bakarrik egin ditzakegu benetan ahaztezin.

Parte hartzera eta intentsitatez gozatzera gonbidatzen zaituztet, eta jai hauek gure bihotzetan oroitzapen ezabaezin bilakatzera. Durangoko txoko bakoitzean gure barre eta musika ozen entzun dadila!

GORA SAN FAUSTOAK!
GORA DURANGO!





TXUPINEROA

VANESSA GOIKOETXEA




Durangar maiteok! Poz handia dut, aurten, nire Durango kuttunaren jaiak ospatu ahal-ko ditudalako modu berezian. Durangon hazi naiz, Durangok une ahaztezinak oparitu dizkit eta denetariko bizipenak eskaini, eta guzti horri esker naiz oraingo Vanessa. Durango herri solidarioa da, kultur eta kirol eskaintza eragingarri eta garrantzitsua duena, nagusiak eta haurrak zaintzen dituena, eta musika barru-barruraino sustraitua duen herria da. Alde zaharreko kaleetan zehar nabilela gure Uri

zaharraren historia usaindu dezaket monumentu eta eraikinek oroitarazten dizkidaten behinolako bizitzaren zertzeladetan.

Beti diñot, harro asko eta munduko nonahiko lurraldeetan nabilela, durangarra naizela. Nazioartean egin dudana ibilbideari esker, pentsatuko ez nituzkeen lekuetan egoteko aukera izan dut; edozelan ere, leku zoragarri, exotiko eta gogoangarriak badira ere... beti gura izan dut etxera bueltatu. Beti nahi dut Durango itzuli. Durango nire etxea delako.

Urriaren 11n txupinazoan zain izango natzaizue, eta, bide batez, jai zoriontsuak opa dizkizuet!

GORA DURANGO ETA DURANGARRAKI!



TXUPINERO TXIKIA

SAN ANTONIO IKASTETXEA: BIHOTZA ETA GOGOA

Gure ikastetxeak, mende eta erdiko ibilbidean, amets ederretan lorik hartu ez duela eta gure asmo irmoa, bihotza eta gogoa eskurik esku aurrera jarraitzen duela erakutsi du.

Neskei goi mailako ikasketak eskaini zizkion Bizkaiko lehen barnetegia izan ginen 1867an, eta ikastetxe mistoa izatera pasatu ginen ondoren. 1993an, Durangoko lehenengo haurtzaindegia zabaldu genuen, durangarren beharrei erantzuteko eta lana eta familia uztartzeko.

1999an, erronka berriak iritsi zitzaizkigun: irakasleok, ikastetxeko gidaritzak hartu, eta irakasleon kooperatiba sortu genuen, Durangoko irakasle kooperatiba bakarra izanik.

Ordutik aurrera, tipi, tapa, tipi, tapa bidea eginez hezi, hazi, pauso tinkoz, beti irribarrez, maitasunez, adeitasunez hesiak apurtuz eta San Antonioko sustrai sendoei lotuz dihardugu. Irakasle kooperatiba euskalduna eta herrikoia gara. Gizarte eta metodologia aldatetei zabalik gaude, ikaslearen ganako arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta gure familienganako hurbiltasuna ere erakusten dugu. Gure ikasleak akademikoki zein pertsona modura hezteko da gure helburua, gaur egungo eta etorkizuneko gizartearen erronkei aurre egiteko. Aniztasunean elkartu, gizartea aberastu.



San Antoniok beti erakutsi du Durango herriarekiko konpromisoa, horregatik, oraingoan ere, dei egiten dizuegu durangar guztioi gurekin batera jaietan antolatutako ekintzetan parte hartzera eta horietan gozatzera, beti ere errespetuzko jarrerak izanik eta arduraz jokatuz.

Denontzako jai segurua nahi ditugu.

**GORA PATXIKOTXU,
GORA PANTXIKE ETA
GORA UME DURANGARRAKI
GORA DURANGOKO JAIAK!**



DuranGOAZEN JAI PAREKIDEAK BIZITZERA!

- Jaietan harreman osasuntsuak, askeak eta berdintasunezkoak sustatuko ditugu, errespetuan eta tolerantzian oinarrituak.
- Ligoteo sanoa nahi dugu. **EZETZA** ez da negoziazioaren hasiera, tematzen bazara jazarpenaren hasiera baizik.
- **SOILIK BAI DA BAI** Ados zaudeten jakin behar duzu, isiltasuna ez da baimena.
- Alkoholaren edo beste sustantzien kontsumitzeak ez du **INOIZ** erasoa justifikatuko.
- Ez dira komentario sexistarik onartuko.
- Ez dira LGTBIAQ+fobia adierazten duten komentariorik onartuko.
- Gorputz, adierazpen eta janzkera guztiak errespetatuko dira.
- Pertsona batek uste badu eraso bat jasan duela, eraso bat dal
Ez zalantzan jarri!
- Edozein erasoren aurrean jarrera aktiboa izango dugu, laguntza eskainiko dugu, betiere erasotua izan den pertsonaren erabakia errespetatuz.

ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!



SAN FAUSTOETAN ERASO MATXISTA BATEN AURREAN...

ARRISKUA BEREHALAKOA BADA, DEITU **112.ra**

ESKURA DAUDEN BALIABIDEAK

PUNTU MOREA Eraso matxisten kontrako arreta eta informazio puntua.

Urriaren 11, 12, 13, 18 eta 19.
22:30etatik 04:30etara.

TELEFONO ZERBITZUA Informazio eta laguntza telefona, emakume psikologo batek atentiduta: **747 459 584**

24 orduan urriaren 11tik 14ra eta 18tik 20ra.

ERTZAINZA DURANGO

94 466 93 00

UDALTZAINGOA DURANGO

94 603 00 10

SEXU-ERASO BATEN AURREAN

- arropa ez aldatu, ez edan eta ez jan,
- hurbildu osasun zentrora, asistentzia medikoa eskainiko dizute,
- zuk erabaki salaketa judiziala jarri nahi duzun,
- asistentzia juridikoa izateko eskubidea daukazu,
- gogoan eduki erasotzailea identifikatu ahal izateko datuak.

EZ KEZKATU ADMINISTRAZIO-EGOERA

IRREGULARREAN BAZAUDE, arreta jasoko duzu zure egoera okertu gabe.

BIKTIMEN ARRETARAKO SATEVI

ZERBITZUA 900 840 111

DURANGOKO INDARKERIA MATXISTAKO TEKNIKARIAREKIN KONTAKTATU

Ordutegia: Astelehena, asteazkena eta ostirala, 8:00-15:00
Asteartea eta osteguna, 11:00-14:00 / 16:00-19:00

618 791 333



SAN FAUSTO JAIK 2024

PROGRAMA

LARUNBATA 5

08:00 PERRETXXIKOEN BILKETA

Irteera Ezkurditik.

ANTOLATZAILEA: ERROTARI ELKARTE MIKOLOGIKOA

09:00-14:00 XIV. DURANGOKO

AZOKA EKOLOGIKOA Andra Marian.

ANTOLATZAILEA: MARISATSA ELKARTEA

18:00 39. SAN FAUSTO ZESTA PUNTA TXAPELKETA FINALERDIAK.

Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.

ANTOLATZAILEA: DURANGO JAI ALAI ZESTA ESKOLA

18:00 39. SAN FAUSTO ZESTA PUNTA TXAPELKETA FINALERDIAK



Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.


Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Eskola

IGANDEA 6

11:00 XXIV. MIKOLOGIA ERAKUSKETAREN EDIZIOA

XXIII. Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XXIII. Lehiaketa Landako Gunean.

ANTOLATZAILEA: ERROTARI MIKOLOGIA ELKARTEA



AZOKA EKOLOGIKOA

ASTEARTEA 8

NAGUSIENTZAT MUS, TUTE, BRISKA, IGEL, BILLAR ETA PING-PONG.

Txapelketen hasiera. Izen ematea doan izango da, urriaren 1etik 6ra arte, adinekoentzat udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira urriaren 7an.

LAGUNTZAILEA: CAFÉS BAQUÉ



ARGAZKI LEHIAKETA

TXUPINAZOA

OSTIRALA 11

18:00 **KUADRILEN KONTZENTRAZIOA**
ETA ANIMAZIOA San Fausto auzoan.
Jaiak badatoz!

18:30 **DURANGOKO PILOTA**
ESKOLAKO UMETXOEN PARTIDUAK
San Fausto pilotalekuan eta Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.
ANTOLATZAILEA: DURANGO PELOTAZALE KLUBA.

19:00 **PATXIKOTXURI ONGI**
ETORRIA San Fausto auzoan. Ondoren kuadrilen jaitziera, udaletxeko plazaraino SUGARRI fanfarrearekin.

20:00 **TXUPINAZOA**
GORA SAN FAUSTO JAIAK!



Udaletxeko plazan (zeinu-hizkuntza interpretea egongo da).
2024ko txupineroa:
VANESSA GOIKOETXEA.
TXUPINAZOA ZUZENEAN pantaila erraldoian Andra Mariko elizpean.

20:15 **ARGAZKIEN BIDEOA**
"SAN FAUSTOKO JAIK: AINTZINAKO ETA GAUR EGUNGO BIZIPENAK". Andra Mariko elizpean jarriko den pantailan.

20:30 **KALEJIRA** Santa Anatik txosnagunera.
ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA

21:00 **TXUPINAZOA** txosnagunean herriko euskalgintzaren eskutik.

21:00 **ANIMAZIOA** SUGARRI fanfarriarekin.

21:30 **KONTZERTUAK** GOZZUE, AINKE, KATU, DJ KUKU & DJ KENE Txosnagunean.

22:00 **KONTZERTUA** SHINOVA Ezkurdin.



SHINOVA TALDEA



SUGARRI FANFARREA

LARUNBATA 12

DURANGO RUGBY TALDEAREN EGUNA

MOZORROA: "JOKO OLINPIKOAK"

7:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

7:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

8:30 **SUKALKI TXAPELKETA** Landako Gunean. Izen ematea eta informazioa Intxaurren irailaren 24tik aurrera, plazak bete arte.

LAGUNTZAILEAK: HIPER EROSKI ABADIÑO
ETA CAFÉS BAQUÉ

11:00-13:00 **SAN FAUSTO HAUR
MARRAZKI LEHIAKETA**

San Fausto auzoan. Izen-ematea:
10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra.
ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO.

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO**

PARKEA Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00-14:00 **GAZTETXOENTZAKO**

JOLASAK Ibaizabal parkean (euria bada, San Antonio ikastetxean).

11:30 **IPUINA INGELEZ**

3 eta 8 urte arteko haurrentzat
Ezkurdiko kioskoan (euria bada, Jesuitak
Ikastetxean).
ANTOLATZAILEA: KIDS&US

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **GAZTE KAMISETA BANAKETA**

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA

12:30 **KALEJIRA BOGORODITSIE**

abesbatzarekin alde zaharretik.



BOGORODITSIE ABESBATZA



SUKALKI TXAPELKETA LANDAKO GUNEAN



TIO TERON DANTZA KONPAINIA

13:00 TIO TERON DANTZA KONPAINIA. "Haurreskolari" ikuskizunarekin. Ezkurdin (Euria bada, Nevers ikastetxean).

14:00 HERRI BAZKARIA
San Fausto auzoan.
ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO.

14:30 GAZTE BAZKARIA
Txosnagunean (euria bada, Kurutziaga lkastolan).

16:00-19:00 TXIKIENTZAKO PARKEA
Landako eskolan (euria bada, Landako Eskolako frontoian).

16:00 SKATE TAILERRAK ETA ERAKUSTALDIA. Landako skate pistan (euria bada, ez da egingo).



M'LOMP ELKARTEA



DJ MINIANN

16:30 MINIANN DJ MUSIKA ANIMAZIOA. Landako Gunean.

17:00 GAZTE JOLASAK
txosnagunean.

17:00 FAMILIENTZAKO HERRI KIROLAK Animatu eta parte hartu! Ibaizabal parkean (euria bada, txosnaguneko karpan).
ANTOLATZAILEA: AUZO ALAI ELKARTEA

17:30 KUIR EZTANDA POTEOTRANSMARIBIBOLLOA.
Pinondotik txosnagunera.
ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA

17:30 M'LOMP ELKARTEA SENEGALEKO ERRITMOAK.
Ezkurditik hasita.

18:00 UMEENTZAKO ENTZIERROA
zezen puzgarriekin eta gurdiekin San Fausto auzoan.

18:00 ELEDER MAGOA "MAGIA MUNDIALA"



EZKURDIN (euria bada, Nevers ikastetxean).

LARUNBATA 12

18:00 **39. SAN FAUSTO ZESTA PUNTA TXAPELKETA FINALAK.** Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.

ANTOLATZAILEA: DURANGO JAI ALAI ZESTA ESKOLA.

18:30 **TXARANGA** Txosnagunetik hasita.

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA.

19:30 **BLUSA TXARANGA** Sugarri fanfariarekin. Irteera Ezkurditik.



19:30 **KALEJIRA MARIATXIEN ANIMAZIOAREKIN.** San Fausto auzoan.
ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO.

20:00 **BENETAN BE TALDEA "BATETIK BESTERA KONTZERTUA".**

Musika familia guztiarentzat
Benita Uribarrena Parkean (euria bada, Plateruenan).

21:00 **KONTZERTUA PURO RELAJO** taldea Andra Marin.

21:30 **GHANAKO TXARANGA**
Animazioa alde zaharretik.

22:00 **DISKO DANTZA**
San Fausto auzoan.

22:00 **KONTZERTUAK LA TXAMA, TATXERS** eta **MALAKIAS MX3**
Txosnagunean.

22:30 **KONTZERTUA CAIMAN ORKESTRA.** Madalena auzoan.

23:00 **KONTZERTUA DJ MARKELIN EZKURDIN**



SAN FAUSTO EGUNA



IGANDEA 13

7:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

7:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:30-14:30 **ARTISAU AZOKA**

EIXU ARTISAU ELKARTEA
EZKURDIN



11:00-14:00 **HAURRENTZAKO**
PUZGARRIAK San Fausto frontoian.

11:00 **PAELLA TXAPELKETA**
SAN FAUSTO AUZOAN.

Izen-ematea: San Fausto frontoian.
Paellak aurkezteko epea: 14:00etan.
Sari banaketa 14:30etan.
ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO.

11:00 **MEZA NAGUSIA**
San Fausto elizan.

11:00 **UMEENTZAKO GOITIBEREN**
JEITSIERA PROBAK. Tabira auzoan.

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO**
PARKEA Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).



HAUR PARKEA



PAELLA TXAPELKETA

IGANDEA 13

11:00-14:00 **GAZTETXOENTZAKO**

JOLASAK Ibaizabal parkean (euria bada, San Antonio ikastetxean).

11:00-13:00 **HAURENTZAKO**

TAILERRAK Ibaizabal parkean (euria bada, San Antonio ikastetxean).

ANTOLATZAILEA: INURRI ESKAUT TALDEA.

12:00 **PONIAK ETA ZALDIAK**

Ibaizabal parkean (euria bada, ez da egingo).

12:00 **UME ETA FAMILIENTZAKO**

IKUSKIZUNA Txosnagunean.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako

txistulariekin.

12:00 **ARTE MARTZIALEN KALEJIRA**

ANTOLATZAILEA: CLUB DEPORTIVO WADO KAN
KARATE-NINJUTSU



Urkiola kaletik hasita,
alde zaharretik eta
ERAKUSTALDIA EZKURDIN
(euria bada,
Jesuitak ikastetxean).

12:30 **PAELLA TXAPELKETA**

Txosnagunean. Sari banaketa
14:00etan.

12:30 **TXALAPARTA, OHOREZKO**

**AURRESKUA ETA ARTOPILEN
BANAKETA** Udaletxeko Plazan.

Ondoren, **KRISKITIN DANTZA TALDEA**.
Amaitzeko: **LARRAIN DANTZA** (euria
bada, Andra Mariko elizpean).

13:00 **DURANGO KANTARI EGUNDO
I TALDEA**. Alde zaharretik.

16:00 **III. GOITIBEREN JEITSIERA**

Tabira auzoan.

16:00-19:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA**

Landako eskolan (euria bada, Landako
eskolako frontoian).

17:00 **GAZTEENTZAKO JOLASAK**

Ezkurdin (euria bada, Nevers ikastetxean).



HAURENTZAKO TAILERRAK

17:00 **MAÑARIA ERREKAREN**

JAITSIERA Tabiratik.

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA.

17:00 **TXOKOLATADA**

San Fausto auzoan (euria bada, San Fausto frontoian).

ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO

17:30 **HAURENTZAKO JOLASAK**

San Fausto auzoan (euria bada, San Fausto frontoian).

ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO

18:00 **"HERENCIA" IKUSKIZUNA**
LA INDUSTRIAL TEATRERA
KONPAINIA



Ibaizabal parkean
(euria bada,
Kurutziaga ikastolan).



MAÑARIA ERREKAREN JAITSIERA

18:30 **DANTZARO**
PATXI ETA KONPANIA TALDEA



Andra Mariko elizpean

19:00 **BERTSO POTEOA**

Txosnagunean.

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA.

20:00-22:00 **UMEENTZAKO**

DISKODANTZA San Fausto auzoan.

21:00 **KONTZERTUA** **HAIZE ARROSA**

musika taldea Ezkurdin.

21:30 **KARAOKEA** eta **DJ MARATOI**

HERRIKOIA Txosnagunean.

22:00 **DISKODANTZA**

San Fausto auzoan.



HAIZE ARROSA TALDEA

UMEEN EGUNA



ASTELEHENA 14

7:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

7:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:00-12:00 **DURANGO IRRATIA**
AIREANI 107.8 FM SOLASALDIAK.
Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik. Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

11:00 **XAKE TXAPELKETA**
UMEENTZAT Andra Marian.
Aldibereko partidak.
ANTOLATZAILEA: LARRASOLOETA XAKE TALDEA

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA**
Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00-14:00 **GAZTETXOENTZAKO**
JOLASAK Ibaizabal parkean (euria bada, San Antonio ikastetxean).

11:30 **UMEENTZAKO KALEJIRA** alde zaharretik buruhandiekin.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **PATXIKOTXUREN KALEJIRA**
SAN ANTONIO ikastetxearekin Ezkurditik udaletxeraino. Ondoren, ohorezko aurrekua KRISKITIN DANTZA TALDEAren eskutik.



POMPER IKUSKIZUNA




GAZTE PARKEA



EKO TXOKOA

12:30 **TXUPINAZO TXIKIA**
GORA SAN FAUSTO JAIAK!



SAN ANTONIO
ikastetxearen eskutik
udaletxe plazan.

13:00 **ANIMAZIOA DJ BULL.**

Andra Mariko elizpean.

14:00 **NAGUSIENTZAKO BAZKARIA**

Landako Gunean orkestrak girotua.

16:00-19:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA**

Landako eskolan (euria bada, Landako
eskolako frontoian).



DJ BULL

17:00 **TAILERREN TXOKOA**

Ezkurdin: uraren txokoa, eko-talka
txokoa, arte txokoa, hondar-tailerra
eta **POMPER IKUSKIZUNA**, ponpekin
egindako erakustaldia (euria bada, San
Antonio ikastetxean).

17:00 **BITSA JAIJA** eta **TXOKOLATADA**

Murueta Torre auzoan.

ANTOLATZAILEA: MURVETA TORRE AUZO ELKARTEA

18:00 **TORTILLA TXAPELKETA**

San Fausto auzoan. Tortillak aurkezteko
epea: 20:00etan. Sari banaketa 20:30etan.

ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO.

18:30 **GOITIBERA ANTZERKIA**

"**ERAITSI S.L.**" ikuskizunarekin.

Otamotzena parkean (euria bada,
Kurutziaga ikastolan).

20:00 **GAUR JAIJA** taldea, musika eta

animazio ikuskizunarekin, Andra Mariko
elizpean.



GOITIBERA ANTZERKI TALDEA



GAUR JAIJA TALDEA

OSTIRALA 18

18:00 TROTAMUNDOS ZIRKO
taldea Ezkurdin "FINITO-INFINITO"
ikuskizunarekin (euria bada, Kurutzia
ikastolan).

19:00 TORTILLA TXAPELKETA
Txosnagunean. Sari banaketa
20:30ean.



TROTAMUNDOS ZIRKO TALDEA

19:00 PILOTA FEST
EZKURDI JAI ALAI
PILOTALEKUAN



Mikel Goñi eta Bernaola -
Oinatz Bengoetxea eta Eguren.
ANTOLATZAILEA: DURANGO PELOTAZALE KLUBA

19:30 FANFARRIEN ARTEKO
NORGEHIAGOKA DEIADAR fanfarria
Otamotzena auzotik aterako da.
TXIMELETAK txarangaren hasiera
Madalena auzotik.

20:00 KONTZERTUA ASTARLOA
OTXOTEA, BOGORODITSIE eta
IZAR GAZTEA. Durangoko abesbatzak
Santa Ana eleizan.

20:00 **UMORE IKUSKIZUNA**
"MONÓLOGOS A DOS BANDAS"

Andoni Agirregomezkorta eta Nerea Garmendia. Andra Mariko elizpean

21:30 **KONTZERTUA NAHIEZ** Ezkurdin.

21:30 **FANFARRIEN ARTEKO**
NORGEHIAGOKA Udaletxeko Plazan.



22:00 **KONTZERTUAK**
TXOPET, PINPILINPUSSIES
ETA BELAKO



22:30 **BERTSOLARIAK MAIALEN**
LUJANBIO, JON MAIA, JONE URIA,
AITOR BIZKARRA, XABAT ILLARREGI
eta **OIHANA IGUANAN.**

Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.
San Agustin Kultur Gunean. Gonbidapen zenbakiak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 10etik aurrera eta jararleku guztiak bete arte.

23:00 **KONTZERTUA**
ESNE BELTZA EZKURDIN



MOZORRO EGUNA

TXOSNAGUNĒKO MOZORRO EGUNA

Gaia: "EITB"

LARUNBATA 19

7:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

7:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

11:00 **XAKE TXAPELKETA** federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.

ANTOLATZAILEA: LARRASOLOETA XAKE TALDEA

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA**

Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00-14:00 **HAUR TAILERRAK**

ASEBIER elkartearen eskutik Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).



XAKE TXAPELKETA

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **KALEJIRA** trikitilariekin TXIRI TXIRI taldearen eskutik.

12:00 **XV. PATATA TORTILLA**

TXAPELKETA Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurrondon Urriaren Tetik aurrera, plazak bete arte.

13:00 **KONTZERTUA**

LUHARTZ TALDEA ANDRA MARIKO ELIZPEAN



TXIRI TXIRI TALDEA

14:00 ELKARTASUN BAZKARIA

txosnagunean.

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA

16:00-19:00 TXIKIENTZAKO PARKEA

Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).

17:00 ANIMAZIOA trikitixarekin pertsona nagusien egoitzatik.

17:00 KARAOKE IBILTARIA

Durangoko kaleetatik.

18:00 KALEJIRA SUGARRI

fanfarrearekin.

18:00 ELEKTROTXARANGA KALEJIRA.

ANTOLATZAILEA: TXOSNA BATZORDEA

18:30 ZIRKOZAUURRE ELKARTEA

"HARREMAN" ikuskizunarekin. Ibaizabal parkean (euria bada, Kurutziaga ikastolan).

18:30 TALDEKAKO MOZORRO

DESFILEA Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Bukaeran sari zozketa. Izen-ematea: urriaren 11tik 18ra Intxaurreondon.



ZIRKOZAUURRE ELKARTEA

20:00 ERROMERIA LUHARTZ

taldearekin Andra Mariko elizpean.

22:00 KONTZERTUA ROLANDO BRUNO ETA GOXUA'N SALSA TXOSNAGUNEAN



GOXUA'N SALSA TALDEA

23:00 ATLANTIDA SHOW ORKESTRA

Ezkurdin.

00:00-03:00 ALKOHOLEMIA

KONTROLAREN STAND

INFORMATIBOA Txosnagunean.

ANTOLATZAILEA: DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO DROGAMENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ARLOA



ATLANTIDA SHOW ORKESTRA

IGANDEA 20

7:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

7:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:00 **MAÑARIA IBAIAREN GARBIKETA** Hasiera: Pinondo Plaza.

10:00 **DANTZA MARATOIA**
Batxata, kizomba, saltsa eta afrodancen tailerrak. Ondoren, dantza bermuta animazioarekin girotuta. Murueta Torre auzoan (euria bada, Plateruenan).
ANTOLATZAILEA: MURUETA TORRE AUZO ELKARTEA.

11:00 **SAN FAUSTO XII. PADEL TXAPELKETA FINALAK**. Neskak eta mutilak. Landako kiroldegian.
ANTOLATZAILEA: PADEL ZALEAK

11:00–14:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA**
Landako eskolan (euria bada, Landako eskolako frontoian).

11:00–14:00 **GAZTETXOENTZAKO JOLASAK** Ibaizabal parkean (euria bada, Landako Gunean).

12:00 **MARRAZKI LEHIAKETA SARI BANAKETA**. San Fausto auzoan.
ANTOLATZAILEA: CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO



DE BALADA TALDEA

12:00 **EMANALDIA TABIRA MUSIKA BANDA**. J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 **PONIAK ETA ZALDIAK** Tabira parkean (euria bada, ez da egingo).

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00–14:00 **ARKU TIRORAKO GUNEA**
Ibaizabal parkean (euria bada, Landako Gunean).
ANTOLATZAILEA: DURANGOKO ARKULARIAK

12:30 **HERRI KIROLAK HODEI EZPELETA** (2 aldiz Euskal Herriko eta Bizkaiko txapelduna), **ALEX TXIKON**, **KARMELE GISASOLA** (Euskal Herriko Txapelduna), **BIHURRI** (Aizkolaria, Mundu mailako hainbat marka esku batekin zein biekin), **KARLOS ARETXABAETA**, **GOIZEDER BELTZA**, **AINHOA LARRINAGA** eta **ARATZ** eta **ENARA BELTZA** ume aizkolariak. Ezkurdin (euria bada, Landako Gunean).

12:30 **KALEJIRA** Alde Zaharretik **ASTARLOA OTXOTEA** eta **IRUÑAKO AHOTS TALDEA**rekin.

13:00 **"DURANGO URIA" XXIV. MARGO LEHIAKETA SARI BANAKETA**. Ezkurdiko erakusketa aretoan.
ANTOLATZAILEA: DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA

13:15 **KONTZERTUA TABIRA MUSIKA BANDA**. Andra Mariko elizpean.

16:00 **ARKU TIRO TXAPELKETA**
Landako Gunean.
ANTOLATZAILEA: DURANGOKO ARKULARIAK

17:00 **DANTZA MODERNOA, GARAIKIDEA ETA URBANOA**
L'ATELIER DANTZA ESKOLA. Ezkurdin.

18:00 **MUSIKA SAIOA DE BALADA TALDEA.** Andra Mariko elizpean.

18:30 **GORA ETA GORA ADINEKOEN ANTZERKI TALDEA "LAS QUE CUENTAN"** ikuskizunarekin. San Agustin Kultur Gunean. Gonbidapenak doan Arte eta Historia Museoa urriaren 10etik aurrera.

18:30 **KALEJIRA IRULITXA** fanfarrearekin alde zaharretik.

19:30 **KALEJIRA PATXIKOTXURI ETA JAI EI AGUR ESATEKO**



Udaletxeko plazaatik hasita tren-kotxera zaharretaraino.

20:00 **JAIEN BUKAERA SU ARTIFIZIALAK**
tren-kotxera zaharretan.

LARUNBATA 26

20:00 **DURANGO TXISTU KONTZERTUA 2024** Landako Gunean.
ANTOLATZAILEA: SILBOBERRI TXISTU ELKARTEA



IGANDEA 27

08:00 **DURANGOKO I. MENDI MARTXA**
IBILBIDE LUZEA 25 KM.
Irteera: 8:00 Landakogunetik
IBILBIDE LABURRA 14 KM.
Irteera: 9:00 Landakogunetik
Izena emateko: www.kirolprobak.com
ANTOLATZAILEA: ALPINO TABIRA MENDI KLUBA

55. UMEEN EUSKAL JAI A
ANTOLATZAILEAK: TRONPERRI DANTZA TALDEA ETA TXORITXU ALAI DANTZA TALDEA

12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, **KALEJIRA** egingo dute eta ondoren **ALARDEA EZKURDI PLAZAN** (euria bada, Landako Gunean).

ERAKUSKETA
EZKURDI UDAL ARETOA



XXIV. "DURANGO URIA"
LEHIAKETAKO MARGOLANEN
ERAKUSKETA.

URRIAREN 11tik 20ra.

Ordutegia: egunero 18:00-20:00.

Larunbat, igande eta jai-egunetan
12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ANTOLATZAILEA: DURANGALDEKO
ARTISTEN ELKARTEA.

PROGRAMAZIO BEREZIA
DURANGO IRRATIA (107.8)



SAN FAUSTO JAIETAKO
PROGRAMAZIO BEREZIA:

URRIAREN 11tik 20ra bitartean.

TERTULIAK eta **ELKARRIZKETAK**
goizeko 11:00etatik aurrera herriko
eragile desberdinekin.



ZEZEN-
PLAZAREN
PROGRAMAZIOA

ANTOLATZAILEA: BERGARAKO ZEZENAK

LARUNBATA 12

18:00 **GRAND PRIX** kuadrilentzako
jokoak bigantxekin.

Sarrera: Umeak: 4 € . Helduak: 6 €

IGANDEA 13

18:00 **ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA**

Ondoren bigantxak publiko
guztiarentzat.

Sarrera: Umeak: 4 € . Helduak: 6 €

IGANDEA 20

18:00 **ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA**

Ondoren bigantxak publiko
guztiarentzat.

Sarrera: Umeak: 4 € . Helduak: 6 €